



Esp. kodea: 2022EDIR0008
Titularra: AED

Gaia: 2022ko dirulaguntza eskatzea
Hasiera data: 2022/05/20

Hitzarmena

Arrasateko udala eta AED elkartearen artekoa, hainbat ekintza elkarlanean antolatu eta finantzatzeko

Bileran dira

Alde batetik, Eñaut Muxika Olasagasti, AED elkartearen lehendakaria, NA 72.573.788W duena, adinez nagusia, Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkartearen izenean.

Eta, bestetik, Maria Ubarretxena Cid, Arrasateko Udalaren alkate-udalburua, haren izenean diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dago eta.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri

Lege testuingurua

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarren hizkuntza eskubideak aitortu eta herri-agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Albisteak eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen die herritarrei, besteak beste. Lege horren arabera, beraz, Euskal Herriko herri-agintek –eta, zehazkiago esanda, udalek– euskara zabaldu eta zabalitzen laguntzeko obligazioa dute.

Horretaz gain, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7. artikuluan zehazten du udalei izendatzen zaiela eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena.

Azalpenak

Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak, sortu zenetik hona, hainbat kultura ekintza antolatu dituela, gaur egun ere antolatzen jarraitzen duela eta Arrasateko herria dela ekintza horien guztien onuraduna.

AED elkarteak urtetik urtera indartzen joan dela eta haren kultura zerbitzuek gero eta eragin handiagoa dutela, ezarpen eta onarpen sozial zabalak lortu dituzte eta.

Garrantzi handikoa deritzotela, batetik, AED elkarteak berak, irabazteko asmorik gabekoa izanik, egiten duen lan eskergari behar bezalako tratamendua ematen jarraitzeari eta, bestetik, bide batez geroa ziurtatu eta sendotzeari ere.

Hori guztia dela eta, hitzarmen hau izenpetzen dute, klausula hauen arabera.

Klausulak

Lehenena. Hitzarmen honen helburua da AED elkarteak eta Arrasateko Udalak, elkarlanean eta AEDren ardurapean, 2022. urtean egingo dituzten jardueretarako dirulaguntzak xedatzea.

Bigarrenena. Hitzarmen honen bidez AED elkartearen jarduera arrunta lagunduko du diruz Arrasateko Udalak.

Hirugarrenena. Arrasateko Udalak 2022 urtean 44.345,00 €-ko dirulaguntza emango dio AEDri.



Esp. kodea: 2022EDIR0008
Titularra: AED

Gaia: 2022ko dirulaguntza eskatzea
Hasiera data: 2022/05/20

Laugarrena. Udalak babestutako ekintzen kartel iragarleetan eta, oro har, ekintza horien publizitatean babeslearen izena jarriko du AEDk.

Bosgarrena. Dirulaguntzaren %60 ordainduko dio Udalak AEDri, hitzarmen hau sinatu eta berehala. Gainerakoa, urteko memoria aurkeztu ondoren.

Seigarrena. Hitzarmen honen klausulak ezin izango dira aldatu edo zabaldu, bi aldeak ados jarri barik. Koordinazio mekanismo gisara bitariko batzordea eratzea adosten da, hitzarmen honen betetze eta interpretazioan sor daitezkeen arazoak ebazteko egitekoarekin. Batzorde hau osatuko dute Kultura eta Euskara sailetakoz zinegotzi eskuordetuak eta AED elkartearen lehendakariak.

Zazpigarrena. Hitzarmen honen iraunaldia amaituko da Arrasateko Udalak aurkeztutako zuriketaren ondorengo ebazpena hartzen duenean.

Zortzigarrena. Alderdiak ez badituzte dagozkien betebeharrak betetzen, hitzarmena bertan behera uzteko prozedura hasiko da. Hitzarmena bertan behera utziz gero, hitzarmena bete duen alderdia bere betebeharrak betetzetik salbu geratuko da.

Bederatzigarrena. Aurtengo ekintzen azalpen-memoria aurkeztuko du AEDk datorren 2023ko urtarrilaren 15a baino lehen, dirulaguntza xede duten ekintzena eta elkarteak egindako ekintza guztiena; eta, horrekin batera, lortu dituen emaitzen balorazioa. Era berean, elkartearen finantza egoerak (egoeraren balantzea eta galera eta irabazien kontua) aurkeztuko ditu AEDk 2023ko maiatzaren 31 baino lehen. Kontu agiri horiek dagokion erregistro ofizialean izena behar bezala emanda daukan enpresa eskudun batek ikuskaturik egon behar dute, eta bertan erakundearen jardura globalaren gastuak eta diru sarrerak aipatu behar dira. Entitate baten jardura globalean sartzen badira diruz lagundutako programak laguntza izan ez duten programekin, aipatutako finantza egoera ikuskatuak aurkezteaz gain, lagundutako programei dagokien deskargu ekonomikoa aurkeztu beharko da, benetan sortu diren gastuak eta diru sarrerak adierazita, bai eta horiek egozteko erabili diren irizpideak ere. Halaber, diruz lagundutako jardueren azalpen memoria aurkeztu beharko da, eta, horrekin batera, lortutako emaitzen balorazioa.

Eta horrela jasota geratzeko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen hau egin eta izenpetzen dute bildutakoek.

Eñaut Muxika Olasagasti

AEDko lehendakaria

Arrasateko Udaleko alkate-udalburua